


ZER

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

179n. Zenbakia Azilla
1993



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



ARABA'KO MENDOTZA

- ERROMATARREN ZUBIA
KONDAIRA ZARRA
- EUSKALDUNEN ITXAROPENA
KONDAIRA BARRIA

EUSKERAZALEAK

EUSKERAZALEAK

1993-94 IKASTURTEA
OGEITASEIGARRENA

BIZKAIERAZ

IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

EGUNAK: **ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN**
EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN

ORDUAK: GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

ORDAÑA: 14.000 pezeta.

IZENA EMOTeko-TOKIA: EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14-2
BILBAO.

URRUTIZKIÑA 423 53 22

26.º CURSO DE EUSKERA BIZKAIKO. 3 NIVELES Y CONVERSACION

DIAS: LUNES, MIERCOLES Y VIERNES
O MARTES Y JUEVES

HORAS: MAÑANA, TARDE Y NOCHE

CURSO COMPLETO: 14.000 pesetas

INSCRIPCIONES: EUSKERAZALEAK
COLON DE LARREATEGUI, 14-2 BILBAO.
TELEFONO 423 53 22

LAGUNTZAILEA

COLABORA

BBK

Bilbao Bizkaia Kutxa

EUSKALTZAINDIARI BOST ESKARI

Oraintsu Euzkadi Irratitik eskari au egin dauskue: Euskaltzaindiari zer eskatuko geunskion.

Aurten beteten dira 75 urte euskaltzaindia sortu zala eta Euzkadi-Irratiak erritarren eskariak aurkeztu gura dautsoz egin bear daben azterketa egiteko.

Zalantza barik, asmo ederra da au, azterketa egitea eta aldatu bear dana aldatzea.

Gure ustez Euskaltzaindiak ainbat aldakuntza egin bear leukez eta orretarako ondo etorriko jako bere kon-dairara begiratzea: Or aurkituko da 1968n urtearen aurrean Euskaltzaindia zelakoa izan zan eta arrezkero zelakoa biurtu dan.

Ez dogu itxaropen aundirik. Ez dogu uste Euskaltzaindiak olako biurtzerik edo aldakuntzarik izango dauanik. Baiña 75n. urtea ospatzea orretarako aukera eder bat litzake, benetan.

Asko gara Euskaltzaindiaren jokabide okerragaitik minduta gagozen euskaldunak, asko gara Euskaltzaindiak gure izkuntzari lagundu bearrean, kalte ikaragarria egiten dautsola uste dogunak. Orregaitik eskatzen dogu benetako azterketa, benetako biurtzea.

Euskaltzaindiak artu bear dauan bidea artuko ba'leu, egundoko poza izango litzake euskaldun askorentzat.

* * *

Euzkadi Irratiari erantzuna emon dautsagunean, guk, labur-labur, irratian eskatzen daben lez, orain azalduko doguzan bost eskari oneik egin dautsaguz:

1.º Arriskuan dagozan euskalkiak indartu dagizala, berbaz eta idatziz erabilliaz.

Beste euskalkietan be samintasuna ba-dagoala badakigu, baiña bizkaiera izan da Euskaltzaindiaren ekinbideagaz geien galdu dauana eta galtzen dauana. Orregaitik gagoz minduta.

Euskaltzainiak beti esaten dabe euskalkien alde dagozela, baiña ori guk ezin sinistu. Euskaltzaindian dagozan bizkaitarrak eurak be ez dabe bizkaieraz berba egiten, ez idazten. Zer egiten dabe, orduan, bizkaiera indartzeko? Berba onak baiño ez?

Eta Euskaltzaindiak ezarri dauan batuak kalte ikaragarria egiten dautso gure bizkaierari. Orrexegaitik galdu leiteke bizkaiera. Eta zori txarrez, Bizkaian bizkaieraz egiten ez ba'da, erderaz egingo da. Ori ikusten gagoz oraintxe be.

2n. Euskerearentzat ain kaltegarri dan atxea, euskera idatzitik zearo kendu dagiela.

Bere sasoian atxea sartu zan. Izan diran zioak izan dirala, zentzunez jokatu nai dauan edozeiñek ikusten dau atxeak ez dautsola ezelako mesederik egin euskerari, bai ostera kalte ikaragarriak.

Zergaitik ez bein betiko atxea kendu? Iñok ez leuke ezer galduko, eta irabazi bai, asko irabaziko leukee ikasleak eta irakasleak, euskeraz idatzi bear daben guztiak eta irarkolak. Italian iru- edo izan ezik beste atxe guztiak kendu ebezan eta italierari ez jako kalterik etorri. Guk, ostera, atxea kentzeko orduan sartu egin genduan. Erreza da kentzea. Kendu dagigun.

3n. Euskaltzaindia euskaldun guztien akademia izan daitela, eta ez batuzaleena. Orretarako euskaltzain egokiak aukeratu.

Euskaldun jator eta jakitun asko izan dira, eta dira gaur be, batuaren aldekoak ez diralako, erakunde orretara ezin sartu diranak. Orrek euskaldun guztiena izan bear Ieuken Euskaltzaindia, alderdi baten zaintzaille biurtzen dau eta indarrak batu-bearrean sakabanatu egiten dauz.

4n. Euskera batua dalako orretan bizkaierearen berezitasunak sartu dagiezela.

Batua bear ba'da, ondo dago egitea, baiña, gitxi gorabera, euskalki guztietatik berezitasunak artuta. Ia erdiak garan euskaldunak, bizkaitarrak, gitxi batzuren berezitasunak onartu bear doguz eta gureak ez dira onartzen, baztertu baiño.

Ez ete da ori minduta egoteko errazoia?

5n. Erdel itzak ain errez eta ugari ez dagiezela onartu.

Gure euskerea, inglesaren antzera, izkuntza sendoa ba litz ez leuke izango arriskurik beste izkuntza batzuta itzak ain ugari artzetik, baiña makalak gara. Gaiñera euskereak bere barruan dauka itz egokiak sortzeko erreztasuna.

Kondairan artu doguz kanpotarren itzak, latiñetik naiz beste erdera batzutatik, baiña gaurkoa Iarregia da. Gaiñera sarritan euskeraz egokiro esaten diran berbak esan bearrean, erderazkoak esaten dira: irudia/imajiña.

Or ba- dauka zer-esana eta zer-egiña Euskaltzaindiak.

75 urteak betetzean, bide onera sartu beite Euskaltzaindia!

EUSKAL-ASTE AURTEN

Euskerazaleak Alkarteak urtero egiten dau, aspaldiko urteetan, euskal Astea. Aurtten be egingo dogu.

Ez da erreza izaten izlariak eta gaiak aukeratzea, baiña urte guztietan aurkitzen doguz baten batzuk, naizta urte guztietan izan bigarrenez edo irugarrenez lan au artzen dogunak.

Aste au eratzean beti izaten da laguntza Jaurketarako erakunderen batzutatik.

Bost egun izaten dira, iru ordu-lauren inguru berbaldia eta ordulauren- edo alkar-izketa. Bitarteetan bertsoak edo olerkiren bat abestuten dau Paulin gure olerkariak.

Berbaldietarako aretoa Eskolapioak emoten dauskue biotz onez eta gure eskerrik onena agertzen dautsegu.

Aurtten azillaren 15'ean asi eta 19'an amaituko dogu. Egunero arratsaldeko 8'retan.

IZLARIAK ETA GAIK

Asieran artu genduzan bideak zeatz-zeatz betetzea gaitxa izaten da. Olako arloetan bidea egiñez aldakuntzak be egin bear izaten dira. Guk bizkaieraz dana egitea nai genduan, baiña izlariak aurkitzea erreza izaten ez dalako, gipuzkoar batzuk be artzen doguz eta gogoz etorten jakuz. Eskerrak eurai.

Gaia euskerea bera izatea zan gure ametsa, baiña arlo ori zabaldu egin bear izan da eta euskal gai guztiak sartu. Orrelan entzungarriagoa izaten da astea.

EUSKALDUNOK ETA KOLON

Au da aurtten lenengo egunerako aukeratu dogun gaia.

Igaz bete ziran 400 urte Kolon Ameriketara joan zala eta ori dalata liburuska irakurgarri batzuk atera ebazan DEIA egunkariak, euskaldunak noraiño kideko izan ziran agertzeko asmoaz.

Arazoa oso jakingarria da, gure aberri txiki onek zelako eragiña izan eban ekintza aretan argi ta garbi ikusteko. Neu izango naz izlari.

RH ODOLEAN ETA EUSKALDUNAK

Gai au aitatzen danean, laster esaten dabe batzuk endakeria dala, baiña or dagoz jakingarriak eta jakin egin

bear dira. Ez gure endea onena dala esateko, olakoa dala gure odola agertzeko baiño.

Gai oneri buruz liburu ederra idatzi eban Jakakortaxarena'tar Txomin'ek, Arjentina'n egindako billaketa zeatz baten barria emonez. Ango azterketa kontuan dala geroa-go lan ederra egin eban Goti osagille euskaldunak. Ikusi Bilbao'ko Antropoloji asteen liburu biak.

Izlarria Arrinda'tar Anes izango da. Ondo ezagutzen dau gaia eta argi agertzeko era bereziak daukaz.

ARANA'TAR SABIN

Guztiok ondo eta sakon jakin bear geunke nor eta zelakoa izan zan Sabin, eta zelako barrizkuntza ekarri eban Euskalerrira, ondoren ugariak eta onak izan dauzan barrizkuntza, bai euskeraren arloan eta bai errigintzaren bidean.

Oñatibia'tar Manu etorriko jaku eguastenean gai au argitzeko.

GERNIKA'KO BATZARRAK ETA BIZKAI'KO JAUNA

Zelako goraberek sortu diran Bizkaira erregea datorrela-ta. Zergaitik ikasi ez arazo orren oiñarria zertan dagoan? Bizkai'ko Jauna, izen ori artu eben Gaztelako erregeak, zer dan eta jauntza ori zelako baldintzakaz igaro zan erregeen eskuetara jakin bear dogu.

Euskalerraren kondaira-arloan oso jakituna dan Arrien'dar Gregorio'k egingo dau berba arlo onetan. Bero-nek idatzi dauan euskal-kondairari buruzko esku-liburua oso irakurgarria da.

EUSKALDUNEN ABIZENAK

Jakintza zabala dauan Zubikarai'tar Augustin ekarriko dogu gai au azaltzeko.

Guztiok arduratu bear geunke gure abizenak zer esan nai daben eta nondik etorriak diran jakiteko. Onek toki-izenakaz dauka zer-ikusia, baiña gai zabalago au beste urte baten azalduko dogu.

Irakurle guztioi egiten dautzuegu dei aste onetara.

OLAZAR'tar Martin'ek

INDURAIN, AURRELARI ERRIMEA

(1993'KO TOUR)

Izen aundia. Lan asko egin eta zintzo ta gogor jokatatu ondoren lortzen dana. Egia da, gizonak berez, arturiko almenak bear ditu bizitzako arazoetan zerbait egin al izateko. Baiña orregaz batera norberak be gizon zurra ta langillea izan bear dau.

Indurain egunetik egunera joango da, bere aringariko trebetasuna agertzen. Burrukak eginda Iortuko dau bere garaitza Paris'ko enparantzan.

Lasterketa asteko garaia da. Esamesak, eretxiak ta gogoak ezbarðiñak dira. Ainbatek irabazle barri bat nai leuke, burruka izan dedin; Prantzezak Indurain, ondo ikusten dabe garailari, ta Etxabarri'k bere mutilla oroz goitik, ikusi nai dau aurten beintzat.

Eta ez dau txarto uste. Lenengo eguna bakarreko eguna da ta Migelek, ibillaldi ondoren, elastiko oria jantzi dau egun birako. Karrera guztian erabiltea, lar, kantzagarria izango litzake ta egun batzuetarako itzi egin bear dau, beste batzuk be pozaldiak izan dagiezan.

* * *

Aldraka egindako ibillaldiagaz, Jose Migel Etxabarri uste onean geratu da. Orain beste batzuk be, gogotsu, ibili daitezela diño, euren jokabide auzartekin. Guk, gero, bear-izanen eran, geure erabagiak artuko ditugu, Paris'era eroso eldu al izateko. Gizon jator baten erabagia dirudi; gauza onak ba, gizartean banandu egin bear dira.

* * *

Illaren bederatzian, sarri oi eban lez, Migel, zur, ibili zan aldra-buru aurrean, ibillaldian jazo eitekenaren arduraz. "Eguneko ekiñaldia uste zan baiño gogor ta zaillagoa izan da.

Jendea arin ibili da, bularra zuzpeltu ta oiñeri bizkor eragiñez. Ta orrez gaiñera, aizea etsai legez izan genduan gure indarrak negurto nairik".

Eta Banesto'ko buruak asko sentidu eban Garmendia aldendu-bearra ta Pruden'en ezbearra. Pruden'ek neke aundiak izango ditu, baiña ibillaldiko nekeak ondo onartu ta aurrera jarraituko dau".

* * *

Garagarrillak 12 ta astelena. "Biertik aurrera ba-koitzak bere tokia izango dau. Luxenburgo'ko ordupekoa aurera ateraten aleginduko naz", diño INDURAIN'ek.

Migelen ustez lenengo astea ondo joan da, berari dagokion eran, azken-orduko sorgin ta sorginkeriak kontuan izanik. Krono eguna eldu da ta alegiñak egiteko gertu dago. Egia esan, ekiñaldi gogorra da aldatz-gora bi gogorrekin. Bata bestearen arteko aldiak sortu leitekez, baiña, Migelek arrokeririk ez dau nai erabilli. Egunari eguneko arazoa bere gain izten deutso.

Baiña Atarrabitarrak bakarreko egun orretan zerbait eskeiñi nai leuskio bere Indurain euskal izen ederrari. Ta "egun onetan egiten dodanak, agertuko deust, urrengo datozen mendi ibilietan zelan jokatu bear dodan".

Bakarreko eguna eldu da. Askorentzat egun goangarria izango da. Bideak, mendiak eta lagunak arrituta geratuko dira ta bere leikide ta lasterka aurkako lagunak, uste barik, auts eginda itziko ditu. Asi ta lasterrean, burukoa bota eban ta aizea artzen aske doa lauak zear ta gora ta bera, arrano baten antzera. Gaur zabalduko ete ditu Paris'ko ateark?

Bugno, Breukink ta Rominger'ek, gogor, jokatu eben, baiña Indurain, danez goitik, joan zan. Ona emen, Rominger'en esana: "Emen, bigarren lekuaren billa joan bear da". Egitada aundia izan da, baiña gizonak gizon izan bear dau ta Migel'ek ez dau burugabeko arrokeririk bota nai.

Chiappuci: "Indurain'en aurka ezer ezin dala egin, argi, dago". Iru minutu galtzeko ustean egon naz ta bost galdu ditut". "Ez nago konforme". Baiña ez dago dana, bertan bera, izteko asmotan. "Igaz, Luxenburgo'n jazo zana, bardin, jazo da emen, baiña mendietan egiñalak egin bear ditut".

Batzuen eretxiz ateark zabalik dagoz. Baiña Migel, naita barruan bere nai izatea asmau, azalez zur agertzen da... Etsai gogorak ikusten ditu...

Bugno: "Utsa noz emongo dauan, zain nago".

"Indurain gaur artean indartsuegia dan arren, ez dot atzerarik egin nai. Ez noa bigarren izatearen billa. Al dala irabaztea nai neuke". Ona emen, Bugno aundiaren amesak. Baiña amesak ames geratzen dira sarri, oraingo onetan geratu diran legez.

Alak eta alegiñak egingo ditue Migelen indarren negurtzen, ta orrez gaiñera, al bada, ondatzen, baiña ezin dabe menperatu gizon ori. Bere aldetik, ixillean, alegiñak egingo ditu, Atarrabitarren guraria aurrera ateraten. "Migel Indurain ain indartsu dagon ezkerroz, ez dau ezertariko buru-miñik izango, ariñeketa irabazi al izateko.". Oliveiro Rincon.

Atarrabitarren euren anaiari, betirako, omen bat eskeiñi nai dautse. Izan bere, Migelen bidez ezagutu da munduan Atarrabitarren erria. Indurain'ek ba, bere odolaren patxadeaz agertu dau arin-aringarako erreztasuna ta zelako gizon gizontsu arteko semea dan. Gauza egokia da erriko seme ospetsu bat goratzea ta geroen gerorako arri baten irudiaz ezilkortuta iztea.

Atarrabia bere asmoetan dabil eta semea, Tourmalet'eko aldatzak gora, Rominger baiño segundu mordo eder bat atzerago... Era guztietako alegiñak egiten ditu ta gaiñera eldu ondoren, artu daben egazkadeaz, arranoa baiño bizkorrago, oiñeztarri baten antzera, Romingerren aurrean agertzen da aldatz barranean. Urregorritzko abiadea izan da ta agur Tourmalet beste ekitaldi batera arte.

Aurtengo ariñeketa aurrera doa ta gauza politikak be entzuten dira. "Zorionez, ni, emen, nago, diño Rominger'ek, ta ni barik gauza ikusgarririk ez litzake izango. "Egiz, gizon onek, gogor, jokatu eban ta ibillaldiari bere jasa ta indarra emon eutsozan. Ori dala-ta, eskubidea eukala gauza politikak esateko, esan leike. "Munduko bigarrena naz, Indurain da lenengo ta gaiñerako guztiak or dagoz poz-pozik". Rominger.

Karrerea amaitzeko azken-egunetan dagoz ta Migel'ek egun bakoitzari berea emoten deutso... nor nundik dabillen begiraturik, eguneko jardunaldiak ondo zaintzen ditu. Ta Jabier Murgialdai'k be, onan diño: "Bakoitzaren jokaerak ez dot uste aldaketa aundirik izango dabenik. Migel'ek lagun guztiei bildurra sartzen dautse ta bere gurpillaren jarrai joan ezkerok, konforme dagoz".

Ta Migel'ek zer diño...?

Gure euskal nappar onek bere jokoa nundik nora eroan argi jarrita dauka. Bere gogoa Paris'en irabazle sartzea da, ta ortarako, gizonkiro jokatu, lerketa ta arrokeri barik. Eguna gaiñean dago. Paris'ko Eliseos inguruak, aurretiaz, jendez beterik dagoz. Euren artean Bizkai, Gipuzkoa, Araba ta Nappar jendea, an dago, euren bitxi eder izkuntza, dantza ta jolas euskaldunekin amaiera ospetsua emon nairik. Egiz, bai, pozik, ospatu ebela euskal abizen ederraren Tour'eko garaitza. Aurrera mutillak... ! !

EUSKAL ASTEA BIZKAIAN "EUSKERAZALEAK" ERATUA

NON: Eskolapioen ikastetxean (Alda. Rekalde, 19)

NOZ: 1993'ko azillaren 15'etik 19'ra.

ORDUA: Arratsaldeko 8'rak.

GAIK ETA IZLARIAK

15 astelena: Euskaldunak eta Kristobal Kolon (Olazar'tar Martin'ek).

16 asteartea: Rh odolean eta euskaldunak (Arrinda'tar Anes'ek).

17 eguastena: Arana'tar Sabin (Oñatibia'tar Manu'k).

18 eguena: Gernika'ko Batzarrak eta Bizkai'ko jauna (Arrien'dar Gregorio'k).

19 barikua: Euskaldunen abizenak (Zubikarai'tar Augustin'ek).

BIZKAI'KO ZAINDARI

(90n. urtea)

Aurten Urrillaren 11'n beteten dira 90 urte, Bizkai'tarrak erantzuna artu ebela.

Nok eta nori emon jakon erantzuna?

Berez Andra Maria Zaindari izatea eskatzeko eskubidea, Bizkai'ko kristiñauen gauzea dirudi, baiña sasoi aretan erritar izatea ta kristiñau izatea bat eginda egozan.

Orain be olako zerbait agertzen da noizean bein, baiña gaur gauzak obeto bereizten dira: Erriagintariak erritar guztien ordezkari dira, ez kristiñauenak, eta orregaitik, gure artean fedebakoak be ba'diran lez, gaurko eritxietan, oba litzake olako eskaria Gotzaiñak egitea, ez Aldundiak. Baiña aldian aldikoa, orduan agintariak egin eben Erroma'ra eskaria eta Aita Santuak erantzun be bai. Milla bederatzureun eta irugarren urtean, urrillaren amaikagarren egunean artu zan erantzun ori. Aurten dira ba, larogei ta amar urte.


Pozik artu eben Bizkai'tarrak erantzun ori eta poza kallean agertu nai izan eben. Or daukagu beste arazo bat: Noraiñokoa da barruko fedea kallean agertzeko eskubidea? Eta eskubidea izan arren, olako gauzak egitea gauza egokia da? Baiña sasoi aretako giroa ori zan: Guztiok fededun eta guztiak kaleratzeko gertu egon bear.

Amaren jaia ospatzeko ba, eleizbide eder bat gertatu zan Bizkai guztirako Bilbao'n. Orduko oiturea zan lez eleiz-bazkun guztien "banderak" eta olakoak eroango ziran, eta errikoak be bai. Dana artzen zan ontzat.

Baiña ba-ziran orduan be olako gauzak begi txarrez begiratzen ebezanak eta Andra Maria'ren jaia bakean egitea geienak nai izan arren, talde bat aurka jarri zan eta izkanbila ikaragarria sortu eben: Burruka orretan gizon bat il be egin eben: Markos Maraion Deustu'ko Ikastetxe Nagusiko baratz-zaiña.

Ara nondik nora Bizkai'tarren poza atsekabe ta, bear ba'da, gorroto biurtu zan! Kondaira'rako gomutaki baltza.

Baten batzuk esango dabe olakoai ez jakela jaramonik egin bear eta oiturai indarra emon bear jakela, atzerantza



egin barik. Beste batzuk osterate uste dogu eleizkizuna eleizate gauza egokiagoa dala, batez be gaurko giro baragarri onetan.


Begoña'ko Andra Maria'ren jaia dagonil edo agustuaren 15'ean ospatzen dabe Bizkaitarrak. Zer orduan urrillaren 11'n?

Urrillaren 11'n ospatzen dana, Begoña'ko Ama Bizkai'ko zaindaritzat aukeratua ta onartua izan zan egunaren urteagarrena da, ez besterik.

Egia da Begoña'ko Amaren izena "Jainkoaren Ama" dala, eta len Andra Maria'ren izen au urrillaren amaikan ospatzen zan. Gero urterillaren lenengo egunera aldatua izan da. Baiña orretan ardurdun izan diranen ustez, Ama'ren eguna Bilbao'ko jaien inguruan, dagonillaren amabostgarren egunean dogu eta Zaindaritzat artua

izan zanaren urteagarrena urrillaren amaikagarren egunean.

OLAZAR'TAR MARTIN'EK



SASI-EUSKALDUNEN JAKITURIA

Denbora gitxi dala taldekide batzukaz asi nintzen gaur egungo euskeraren egoera zela eta, alkarizketatxo baten jarduten, eta asko eztabaidatu ondoren, euskeraren alorreko gauzetaz, gauzak bat ere argi ez eukezela konturatu nitzan.

Jende askok, euskeraz itz egiterakoan, edo baita idazterakoan ere, erdal jokerak erabiltzen ditu. Zeozer esaten ba'dautsazue, gramatikalki ondo da-goela diñotsue eta or bukatzen da eztabaida.

Euskalgetitik urteten daben jendeak euskeraz itz egiten dabilzazelekoan erderaz ari dira itz egiten euskal itz-ekiñ.

Bereala nabaritzen da betiko euskaldun zar baten gatza eta bizitasuna, bai itzetan eta baita esaereteen ere, euskaltegian ikasitako euskaldun barri baten ondoan.

Gaur egun, bai irratian, bai telebiziñoan eta bai izparringian, itzalezko zartadak ematen dabezan esaldiak entzun geinkez, eta alfabetutako pertsona ba'zara, tira, igarri egiten dozu zer esan gura dauan testu-ingurutik, baiña esaterako gure nagusiak, bat ere alfabetatu gabeko nagusiak edo gitxi alfabetatutako nagusiak eziñezkoa dabe mezu ori patxadaz ulertzea.

Adibide argi bat ipinteko; gure amomak bere bizi guztian euskeraz itz egin dau, erderaz oso gutxi daki, eta ez dau ulertzen Euskal Telebista, ezta ere euskera batuan itz-egindako alkarrizketa bat.

Nire ustez alde batetik iztegiari bota aal deutsagu erru apur bat, gure inguruko itzak eta euskera batuaren barruan dagozan itzak ezberdintasun batzuk daukazelako, eta ez ezberdintasun aundirik, apur bat baizik!

Eta beste alde batetik joskera-arazoa dogu. Euskaldun askok garrantzirik emon ez arren oso garrantzitsua da joskera zuzen, jator eta argi bategaz, euskeraz idaztea eta itz egitea.

Ori lortzen ez dan artean gure izkuntz zaarra itzera kondenaturik dago.

Sarri berba arrazoizkoen bidez aalegindu naiz jende batzuri ulerterazten, baiña ezinezkoa iruditu yat euren erantzuna jaso ondoren.

LEGARRETA'TAR ASIER



BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ



Eusko Jaurlaritzaren
Laguntzaz.
Kultura Saila

OKERRAK ZUZENTZEN

"MUNDO"KO OGETA

EMEZORTZI ZERRENDAKO IDATZIAN AGERTUAK 1993GN IRAILLAK 14AN: HEMENGO GAUZAK

Gaztelera	Batuaz agertuak	Euskeraz bear lutekena
El mejor ejemplar	Ejemplarik ederrena	Erduzkorik onena
lo intervenido	interbenitutakoa	Asterkatutakoa
documento	dokumentu	argibidea
curiosos	kuriosoak	adigarriak
paranoico	paranoikoa	erdi zoroa
para reflexionar	erreflexionatzeko	ausnartzeko
los errores	erroreak	uts egiteak
valentia	balentia	ausartasun
para estorsionarlo	estorsionatzeko	beartu erazteko
evidentes	ebidenteak	nabariak
lo mas monumental	monumentalena	egundokoena
no esperaban	ez zuten espero	ez zuten itxaron
memoria histórica	memoria historikoa	edestiko oroimena
imagen plural	irudi plurala	Batzuen edo askoren irudia
nuestro error monumental	geure errore monumentala	gure egundoko uts egitea
ha hecho posible	egin baitu posible	lcikena egin baidu
mudos	mutuak	mintzo gabeak

Barkatu egizue idazleak, itz labur oiek ondorio onak lekar - kiez ondo egiñak balira, bañan era onetan agertzen baditugu gu gara edo gera gure izkuntza ilko degunak.

Zer nolako euskera erakutsi edo ikasiko degu?

Tamalgarria benetan.

Ez da arritzeko "ongi dago" esan bearrean "Vale" esatea.

Beste itz oiek ere entzun eta irakurri egiten dira gaur egun, bai irratietatik eta izparringietan.

Bandera	Ikurriña
Telebista	Ikus-irratia
Salbatzeko	Gaizkatzeko
Enzerratu	Giltzapetua
Presoak	Ezpetxeratuak
Aerportua	Egazkin-kaia (zelaia)
Seme predilektoa	Magalpeko semea
Aislatu	Bakartu
Festa	Jaia
Kantatu	Abestu
Kontra	Aurka
Iru ta zero	Iru eta uts
Segurantz	Ziurtasuna
Notiziak	Albisteak
Indemnizazio	Ordainketa
Komitekoak	Batzordekoak
Atrakatu	Lapurtu-Ostu
Kotxe baten	Berebil baten
Treanean	Bultzian
Bize-Presidente	Lendakari-ordekoa

Inportanteak
Inbestigazioa
Boletina
Presupuestoak
Familia
Guardarako
Despenatzea
Aklarazioak
Secretario orokorra
Exemplo
Partzial
Asistentzia
Konplexu
Kreazioaren zikloa
Regalo

Garrantzizkoak
Azterketa
Argi-bidea
Eralkizunak
Sendia
Zaintzarako
Zigor-kentzea
Azalpenak
Idazkari orokorra
Adibide, eredu
Zatika
Batzaldi, Laguntza sendaketa
Ulergaitz, Adigaitz
Sortzearen aldia
Oparia

Erriko jaietarako Programa edo egitarauan azaldutakoak

Etap	Ekiñaldi
Diana	Goiz-eresti
Partiduak	Jokoak
Profesionalak	Bizi bidekoak
Finala	Azken joko
Tiro pitxon	Usakume erailtzea
Koadrilen desfilaketa	Lagun taldeen igaro-aldia
Soka muturra ospatuko diren kaleetan kotxerik ez aparkatu =	
Soka muturra ospatuko dan kaleetan berebilik ez utzi	
Zezen entzerrua	Zezen ixtura

ARTOLAZABAL ILARI

AITA LETONARI OMENEZ

Ludi onetatik beste mundu ezezagunera joan zarala, oporraldietan nengoala jakin dot.

Siñisteziña egin jatan lenengoz barri ori.

Urte asko zenduala banekian eta urteek parkatzen ez dabela bere bai baña Bizkaieraren aldeko nire gudari kutuna lurretatik betirako joan dala jakitea mingarria izan da niretzat.

Ezagutu zinduguzan eguna, bagikotasunez gogoratzen dot.

Portugalete'ko Santa Ana Lekaieme-etxean dauken eleizatxoan izan zan. Zu, Larunbateroko euskalmezea ospatzen joaten ziñan eta Portugalete'ko jende batzuren artean, nire aiztea be, naiz eta euskerarik ez jakin, bere semetxoagaz joaten zan.

Zu, euskeraz jende gitxik ekianaz konturaturik, meza ostean gura ebanari, klaseak emoteko eskeñi ziñan eta ikasle orretariko bat, nire aiztea izan zan.

Ni neu be Sestao'n (nire errian) ikasten nenbillen eta ikas-liburua bardiña izan ezkeru, nire aizteak egun batean beragaz joateko eskatu eustan orregaitik Larunbateko arratsalde aretan ezagutu zindudan, Aita Letona.

Nik nire aizteak baño euskera apur bat geiago nenkiala konturatu ziñanean eta Bizkai'ko izkerea niretzat politena eta ikasteko ta erabilteko bearrezkoena zala esan neutsunean pozaren-pozez artu ninduzun. A zan itzaldi alai, sutsu eta entzungarria! Naiz eta adiñekoa izan, zure begietan txinparta disdiratsuak ikusi aal eitekezan. Poz-pozik eta ago zabalik geratu nintzan zuri entzuten. Zure biotza ta burua euskeraren aldeko ekintzaz beterik egozan.

Laguntzeko prest gengozala baieztatu geutzunean gure adizkidetasuna asi zan, zenbat urtetarik ori?

Amairu, amalau, amabost... ziur ez dakit baña orrek ez dauka garrantzirik, garrantzitsuena, ordotik aurrera alkarrekin egin genduan lan apala baña ederra izan da. S.A.B.I. izenez, Bizkaieraren aldeko idazki asko argitaratu genduan, orri banaketak, ormetan iragarkiak eskegi e.a.

Baña politenik politena, sendi osoa nagusi nai txikiak, sarturik egoala zan.

Orozko zure erri politean be egon giñan zugaz eta zu be, gurean izan ziñan.

Azken urteetan bakoitzak bere lanean ekin dogu eta, urrundu egin gara, gure adizkidetasuna aaztu barik eta urteroko gabon txartelak bialduz.

Ezkerrik asko Aita Letona! Zure aziak gurengan loratu dira eta bakoitzak gure eraz Bizkaieraren aldeko lanean (zuk bezela) azken-arnasa izan arte jarraituko dogu.

PALMI



IRAKURLEAI OARRA

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza eskuratzeko area. Etxerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dautzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren izena ipiñi ta 1.500 pezeta dirala idatzita. Txartel ori sartu karta-azal baten eta gaiñean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA.

Colon de Larreategi, 14, 2.º, eskoia. 48001 BILBAO.

BARRIRO EMEN

Berriro igo nauzu ene mendira
oroigarri zarrei maitez begira...
Andre Lurrak jaulki ditu igaliak;
zurbil dauka aurpegia, itzal begiak.

Xabier Lete

Barriro nator, barriro eta bizkaieraz, bizkaiera errezean, ulerkorrean. Ainbat urtetan egon naz aldizkari onetara lau lerro idatziak bialdu barik, eta ez dakit ziur zerk sakatu nauan barriro idazten. Asmoa ez jat sekula burutik joan, baiña astia, denporea, ueña, abagunea..., ez! olakorik esatea ez litzateke egia izango, atxakiak billatutea baiño, gogoa, eta ez besterik, izan da falta izan danal. Gogoa dagonean, astia, denporea eta abarreko guztiak aurkitu egiten dira.

Idazten nagon bitartean, burua apurtu bearrean nago, zergaitik asi nazan idazten jakin miñez. Zerk bultzatu nauan barriro orri zuri baten aurrean jarri eta au guzti au idazten.

Baleiteke, On Martin gure zuzendari eta bultzatzaile jauna entzun eta ikusi izanak.

Illeta meza bat zan, bion lagun baten amarena.

Baseleiza jendez beterik egoan, ez egoan barrura sartzerik, baiña mezea asiaz batera, abadearen berbak entzutean, bereala ezagutu neban Martin jauna. Gure lagunaren amari kristau agurra emotea amaitu zanean, berak ere ikusi egin nindun eta "gogoratu" egin eustan, zelan denpora dala, noizean bein, aldizkari onetara urbiltzen nintzan eta denpora aretan idatzi ere, "polito" idazten nebala (ez dot uste inoiz guzur aundiagorik esan dauanik).

Egoera aretan, une itun aretan burutik zera igaro jatan: Bizkaiera ilten ete egoan gure lagunaren amaren antzera?

Aspalditik ikusi dogu euskeraren sagarrean arra sartuta, baiña noraiño usteldu deusku igalia? Noraiño cldu da sitsa, enborreraino ala sustraietaraino? Ala osasun guztiaz ilten ete dago gaixoa, aspaldion batzuk erakutsi gura deuskueñez?

Beste gauza batzuk ere etorri jatazan burura. Beste denpora batzuk, Euskerazaleak-en egoitzen maai haten inguruan giñenekoak.

Eta zelan aaztu batez ere Anton, Anton Landajuela, eta heronegaz egindako solasaldiak.

Ez da bat ere erreza aztutea bere arratiar umore fiña.

Baiña zertarako izan zan guzti ori gero jardun ezik? Ncurea baiño ez da errua, ez badot jarraitu. Besteen alegiña ikusteak lotsatu egiten nau.

Orduan berbiztu jatazan idazteko gogo eta asuiok. Baiña baleiteke egotea beste arrazoi bat gogo eta asmo orreek indartu eta sendotu dauazana.

Aldizkari onetan noizbeinka lagun min baten idaztiak ikustea. Ainbat gauzetan alkarregaz egondako laguna. Bere izena ikusteak ere lotsa sortu dau nire barruan.

Orduko gauzak gatzak izan arren, egin egiten *ziran*, iño-lako alogorik itxaron barik (sarritan aurkakoa itxaroten genduan eta olan eta guztiz be ekin egiten genduan).

Bizitzaren joan-etorriak gorputzez urrundu egin gaitu, ez gara orduan beste sarri ikusten (noizkorako mai baten inguruan?), baiña gogoz eta burutapenez, gauza askotan oindiño alkarregandik naiko urbil gagozala uste dot.

Gainera argi dago bere ekiña gogorragoa izan dana, nik idazteari itzi deusodan artean, berak asi eta jardun egin dau-eta; batzutan Alemaniako puntatik eta besteetan urbil-gotik.

Lagun au niretzat ekiñaren eredu izan da askotan, eta bizitza onetan, geienetan geiago balio dau ekiñak almenak baiño.

Eziña okerra izan arren, gertatu izaten da ekiña okerrago izan eta eziña egiña biurtzea.

Beronen lekuko naz, ikusia dodalako injeniritza lan bat bizkaiera garbian idatzita, iztegi egokitu bat itsatsita eukalarik.

Ez da au gogo eta ekiñaren adibide bat? Non geratzen da, lan teknikoetarako, euskeraren iztegi abcrastasun-falta, alako gauza baten aurrean?

Diñodanez ba, lotsatu eta bultzatu egin nabe gertakizun oneek. Orregaitik nator, lotsa orretatik urtetzeko, asitakoari ekiteko, bizkaieraren etxeari, igeltzeru txarra izan arren nik ere arri bat ipintzeko asmoz.

Eta zergatik bizkaieraz? Zergaitik ez batasun bako "batu" orretan? Itz baten esanda, zeozer idazten badot, ulertzea gura dodalako.

Gaur egun idazti bat zenbat eta ulertzeko *al.xaeoa izan badirudi ohea dala eta nik idazle lez bizitza irabazteko, ez asmorik. ez almenik, ez baliorik ez daukadanez... idazten dodana irakurleak ulertzeaz naikoa dot.

Luzeegi egin jataz nire burutapenak, nire arrazoi emoteak, urrengorako itzi bear ha, beste gaien bat ikuszea, eta ca orrela asitako asmo onek jarraipeuik daukan.

ENRIKE LTXASALDE

SHAKESPEARE EUSKERAZ

BIZKAIAN ZEANURI-ALDEKO EUSKALKIA SALBATURIK DA 37 Antzerki ingeleratik euskerara zuzenean

Larrakoetxea'tar Bedita'k egin du lan ikaragarria au. Shakespeare idazle inglesaren lan osoa, 37 antzerki, euskeratu ditu bizkaitar idazle iaio onek.

Erdi-Aroko ingles izkuntzatik xuxen-xuxen euskeratu ere.

Lana da ikaragarria.

Lana da betirakoa.

Ez goaz Shakespeare'ren lanik emen agertzera. Mundu osoan ezaguna da; jakintsuen artean batik-bat. Bere komedi, trajedi eta drametan garai artako gizarte korapillo guztiak agertu zizkigun.

Ordukoak eta gaurkoak.

Betikoak.

Orretan datza Shakespeare'ren ezaugarrietatik bat.

Baiña, ez da ori bakarrik.

Badu besterik. Itzen aberastasuna, alegia.

Ingles izkeraren ezkutuki guzti guztiak, itzen ugaritasun guztia, bere mende zuan Shakespeare idazleak. Beraz, Shakespeare ondo itzultzeak badiu bere nekeak; ematen ditu bere lanak.

Ez da edonork egin lezaken gauza. Itzultze ori egingo duan gizonak, Euskeraren jabe bearko du izan. Eta Larrakoetxea'tar Bedita, larogei urte egiñak dituan gizona, Euskeraren jabe da. Aberatsa bera ere, Shakespeare'ren antzera.

Bere euskalkiaren jabe da, batez ere.

Arratia'ko euskalkiaren jabe.

Zeanuri'ko euskeraren jabe.

Ez da ba arritzeko, Zeanuri'ko euskalkira biurtu badigu Shakespeare osoa.

Euskera utsera biurtu ere.

Erreza izango litzake euskera-erdera-motroillo batera biurtzea, gaur egunean egin oi dan bezela.

Larrakoetxea'k ez du erderara jo. Euskera-utsaren esi-barruan eutsi dio.

Eta orixe da, ain xuxen, zailtasun eta gaiztasunik aundiena: Shakespeare guztia euskalki bakar baten neurrian sartzea.

Bagera euskal-idazle ugari erdera ondo baiño obeto jakin-da, euskeraz ari gerañok. Guri jakinduri eta kultura guztia erderaz eman digute.

Eta euskeraz ari gera traketz eta urri.

Motz.

Shakespeare euskera utsean jateko euskal-ortzak falta. Euskera-motrillo batera itzultzeko, erdi-euskera erdi-erderara egiteko, euskeraz ezin dogunean, erderara jotzeko, ortarako bai, bagera.

Artara, neronek ere egingo nuke.

Baiña, Shakespeare-izkeraren aberastasunak euskera utsean emateko, ortarako euskal idazle gutxi ikusten ditut baztarretan. Euskal gizona bear.

Larrakoetxea euskal gizona degu.

Euskeraz sortu, euskeraz azi eta euskeraz ezitako gizona.

Euskera-tresna alde guztietatik menperatzen eta erabiltzen dakien gizona.

Euskeraz jantzi-gabe, billutsik eta narru-gorri bagabiltza, eldu bi eskuekin Larrakoetxea'ren itzultzeari eta ikasten saiatu.

Zure eskasia ez da Larrakoetxea-Shakespeare'ren kulpaz.

Errua zurea da.

Ikasi.

Shakespeare aberatsa da eta Larrakoetxea ere bai.

Ikasteak badu laztasunik. Ez da erreza. Ikasi nai badezu, murgildu zaitez euskal-itxaso orretan. Igari ez badakizu, artu bear dozun laguntza; euskal-iztegi eder bat.

Shakespeare eta beste idazle jatorrak, euskera jatorrera itzuli bear dira. Euskeraren izenean erdera-naaste batera edo euskerantora itzultzea, Euskerari iruzur gitea litzake.

Tranpa egitea, alegia.

Larrakoetxea'k ez digu tranparik egin:

ingelera utsean zegoena,

ingelera aberatsean zegoena

euskera utsean eta

euskera aberatsean

biurtu eta itzuli digu.

Euskalki batera.

Bere amaren bularretik egotzi zuan euskalkira.

Ala bear ere, lana sakon-sakonetik egingo bada.

Ez du Euskera baturik egin. Batuak gutxienez bi dira. Euskalkiak asko. Guztiak dira Euskera. Euskera euskalkieri esker bizi da.

Erronkari (Ronkal) inguruko euskera illik da. Oraintsu il dira ango aizken-euskaldunak. Besteak erderantora bihurturik daude: euskera aaztu eta erderarik ikasi ez.

Erronkari'ko euskeran orrelako lan bat egin izan balitz...!

Betirako Euskera baten aberastasunerako Larrakoetxea'k egin digun lanak ez du preziorik.

Zeanuri-aldeko euskera bizkaitarra salbaturik da betirako.

Euskerak bere jakintsu-talde ugariak izango dituanean, orduan bai Shakespeare-Larrakoetxea bikotea izanen dala (jakintsuentzako, alegia) sekula agortuko ez dan arrobi aberatsa.

Bitartean, lan onek maixutza agurgarria erakusten digu.

T.B.O.'ak egiteko edo kontutxoak euskeratzeko edozein idazle, batu edo batugabekok, balio du.

Euskeranto-erderanto bat ere ondo egongo da erderaz besterik ez dakienentzako. Lan errezak bear dira gaurko gure populuari euskeraren leenurratsak egiten laguntzeko.

Shakespeare, ordea, ez da ikastoletako katoia. Shakespeare'tik atera lezazke umeentzako kontutxoak; baiña, ori ez da Larrakoetxea'ren lana izan. Euskal-bizardunentzako lana dezu.

Euskeraren arloan gizon dutako gizakientzako da lan ori.

Umeentzako edo Euskera biberioetan artu bear dutenentzako or dituzute Pernando Amezketarra eta abar.

Biberioetan ere esne ona bear da. Euskera jatorra. Ume euskalduneri esne txarra ematea, euskal-izatearen aurkako pekatua litzake.

Larrakoetxea'ren lana ez da biberioetan edaten dan oien antzekoa.

Edaria ba'litz, Ezkozia'ko wiski litzake. Sua daria. Edaten ez badakigu, erraiak erretzen dizkiguna. Bestela, ordea, sutondoan jarrita, pipa ortzeetan, euskal-aoa gozatzeko aukerakoa.

Etorkizunerako liburua, eta teknika-gaiak ugari eskeiñi lezazkena.

Itxas-ontzia aundia eta ederra da. Bear ba'da, gaur eguneko uretarako aunditxo. Ura falta ba'da, ez da barkuaren errua.

Marea-beeran edo legorrean egiten dira barkuak.

Marea-beera degu.

Igoko da marea eta orduan itxas-ontzi ederrenetakoa izanen da Larrakoetxea'ren ontzia. Jendea erabiliko du bere erraietan ugari.

ANES'EK (1973)

HILARIA MARKAIDA'RI ALKAR-IZKETA

Hilaria Markaida, Emerando'ko alabea, "Martei" baserrikoa, afiziñoz galtzerdi-egillea.

Emerando'n jaiio, Emerando'n azi, Emerando'ra ezkondu, Emerando'n bizi, Emerando'n alargundu: Bizi-modu au eroanda, gitxik ezagutuko eben gure Hilaria eta bere trebetasuna.

Baiña Ikastolakoak ba-ekien, ondo jakin be, nor zan eta zer egiten eban gure Hilaria'k, ze bertako jai baterako deitu egin eutsoen eta bertan egon zan gure andrea, bere goru ta gardakaz lanean zelan egiten zan erakusten ebala.

Kasualidadez egun aretan ikusleen artean Euskal Gobernu-ko Kultur-Saillako batzuk izan ziran.

Gure andreagaz berba egin eben eta arrezkero or daukazue gure Hilaria, munduko bazter zabal guztietatik, gure euskal oitura zarretatik bat erakusten: Non jaia an gure Hilaria'k izterra.

Txarkoa, Atlantikoa be pasata dauko. Idaho'n, Estatu Batuetan bere egonda dago. Eta kontuan artu zer pasa jakon abioia (egazkiña) artzeko egoala: Kontrola pasatzean "deje el objeto punzante que lleva" esan eutsoen goruagaitik, eta berak ia zelan itziko eban, bear-bearrezkoa ebala galtzerdiak egiteko, eta abar... Komandanteak orduan: Emon eistazu niri eta Ameriketara eltzen garanean barrero dautzut" esanaz konpondu eban arazoa.

Itauna: Azaldu Hilaria, zelan asi ziñan galtzerdi eta goruagaz.

Hilaria'k: Lenago lenago, argi itzi bear dot au ez dala nire bizi-modua izan sekula bere. Nire "hobby" bat baiño. Nire etxeko bearrak lenago, eta gero au.

Ba amari ikusita. Amak egiten ebana nik be egin gura.

Egundo be ez nebala ikasiko, esaten eustan amak, nire estiloa ikusita.

Batzutan etxeko bearrak egin-bearrean, guruagaz asten nintzan, baiña amak igarri, ikusi ez arren, goruagaz ibiltzen nintzala, ze nik ez neban gorua izten, berak izten eban moduan.

Eta orrela ikasi neban.

Gure zarrak gizaldirik gizaldira irakasten ebezan olako gauzak: gure amomak gure amari, gure amak niri irakatsita, orrelan ikasi neban nik ofizio au.

Itauna: Gizaldirik gizaldira datorren jakituri au galdu egingo dalako astea daukazu, ala ez?



*Hilar a Mm'kaida, galtxerdigillea.
(ArgaZkiu: Legarreta'tarAsier'ek).*

Hilaria'k: Au galduta dago. Atzetik ez dago jenterik au egiteko-eta.

Beste ofizio batzuk desagertu egin diran modura, au be desagertu egingo da. Len gauza guztiak baserrietan-edo egiten ziran: Ogia, taloa, gaztaia, otzarak... porruak eta kipulak be bai. Gaur gauza guzti orreik eta geiago oraindiñokarren kalean nrckea-go daukazuz.

Olan bada, zertarako bear egin baserriari'

Eta ez egite onegaz desagertu egin dira ofizio asko eta oindiño geiago desagertuko dira emetik aurrera nire ustez.

Sufritua da gaur-egun baserrian bear egitea. Orregaitik, baserrian bearrean jente gitxik egon gura dau.

Itauna: Zelan egiten dozuz galtzerdiak?

Hilaria'k: Lanazko galtzerdi batzuk egiteko, beitu zeintzuk diran emon bear diran pausuak. Lenago-lenago, bildots—lanea erosi bear da.

Lengo bildotsen lanea obeamgo izaten zan gaurko egunekoak baiño.

Gaurko eguneko bildotsen lanea lodiagoa da eta ez dakit zer daukon, baiña lengoa askoz be fiñagoa izaten zan.

Gaurko bildotsak okela geiago daukie (pentsu dala-ta) baiña lanea txarragoa.

Leen ekaiñaren 16'rako-edo, bildotsai ulea ebagiten eutsoen. Guk orain ez daukagu bildotsik, ezta lanarik bere. Eta bear izaten doguna erosi egiten dogu.

Ala eta guztiz bere, lana onak dekodaz (daukadaz).

Orain lanea zelan garbituten dan esango dautzut: Asieran lanea loi-loi egoten da; Ur beroagaz garbitu egiten dozu, baiña jaboirik barik, eta sikatu. Sikatuta gero gardatu; Gardatu-ostean firua ateraten dozu, gero egindako firuagaz galtzerdiak egin eta amaitu ondoren Jaboi Txinboagaz barrero garbitu eta suabe-suabe geratzen jatzuz.

Itauna: Zu, Hilaria Markaida, Emerando'ko alabea, Martei baserrikoa, galtzerdi-egillea afiziñoz, eta zure antzekoak diranak, emetik aurrera, gero eta gitxiago ikusiko doguzalakoan nago. Eukizu bizitza luze-luze bat eta gaur-egun daukazun trebetasun ori ez dedilla galdu.

JUAN LUIS ZELAIA'K ETA
LEGARRETA'TAR ASIER'EK

"EUKERA, KARRAMARRUAREN ANTZERA"

Gauza jakina da, gaur egun, euzkera ikasi ta bultzatuteko aukera geiago doguzala lengo aldie-tan baiño.

Ikusi baiño besterik ez dago, zelango diru-ko-puru itzelak erabilten diran euzkera garatu eta za-baldu daiten, jendeak albide geiago izan daian gure ele ederrarengana urreratuteko.

Bai Eusko Jaurilaritzak, bai Aldundiak eta bai Udalak, (geienak, beintzat) mueta guztietako erreztasunak emoten dabez geure berbetea sendotu ta edatzeko, eta ori txalogarria da, benetan. Orre-tan beti egingo dogu bat orregaz euskaldunok, batez be, egunotan arerioak agertuten asi diranean.

Baiña, ori gauza bat da eta beste bat, guztiz bes-telakoa, zabaldu edo babestuten daben euzkeraren mailla edo balioarena.

Or dogu, indarrean dagoan edo, argiago esate-ko, indarrez sartu gura daukuen "el batua". Au, Erakunde guztiak onartuta daukagu eta Euskal-tzaindiaren aolkuz. Beraz, asmatutako gauza orreri jarraitu bearko dautsagu, nai ta naiez.

"Batasun" au, ostera, oso kaltegarria da euske-rearentzako. Euzkera "barri" ori ibilten asi zane-tik, erderakadak nun-nai, gura aña doguz, jaun da jaube egin eta, zoritxarrez, euzkereari bere euskal sena ta jatortasuna galdu eragin arte.

Bestela, euzkera jatortzat emon ete giñeiz olan-go "bitxiak"?: "Biolentzia", "Espero", "Presiden-tea", "Irla" eta abar, eta abar. Eta guzti orreik eta geiago, izparringi, aldizkari, ikustirradi eta irratie-tan, ikusi, entzun eta irakurri leiz. Erosi "Euskal-dunon Egunkaria", entzun "Euskadi Irratia" eta len aitaturakoa egizatutako dozue.

Guzti orren aurrean, geroago ta argiago gera-tzen da, karramarruaren antzera, atzera goazala.

Bai, jaun-andreok. Alde batetik, ikusiko dozue jende askok "euskeraz" egiten dauala, baiña zelan-Qo euzkera? Or da koskea. Nere eritxiz, txarto eus-keratutako gaztelera litzake.

"El batua" deritxona aldeztuten dabenak be, au-

tortu dabe "el batua" orrek ez dauala balio ez eler-tirako, eta ez jakintzarako. Orduan, zertarako bear ete dogu?

Antza danez, garrantzitsuena ei da jende askok eta askok, itz egitea, nai eta itz egiten dabena, euz-keraz txarra izan. Eta olan pentsatuaz eta egiñaz ez da arritzekoa ikusten diarduguna ikustea.

Beste alde batetik, beste gai bat atara bearrean gagoz. Len aitatu doguzan erakundeak diru-lagun-tzak emotean, zelan banatzen dabez, eta nortzuei?

Ondo jakingo dozuenez "el batua" deritxona al-deztuten daben talde eta erakundeak (orrein ar-tean, Euskaltzaindia, zoritxarrez) alde batera itxi-ta, ba-doguz beste talde ta gizeseme batzuk, euz-keraz jatorra, garbia ta txukunaren alde diarduenak. Orra batzuk: "Euskerazaintza-Erri Akademia", Euskal-Erri osoan zabalduten dana, "Euskeraza-leak", Bizkaian, Bizkaiko Euzkera jatorra salbatu gurarik dabillana, "Arbasoen Izkuntza-Zaleak", Donostin, au be Euzkera jatorraren alde, batzuk esatearren.

Baita euskaldun seme jatorrak be: Zubikarai tar Augustin, Onaindia tar Santi, Jakakortajarena tar Txomin, Urrestarazu tar Andoni ("Umendi"), bes-teak beste.

Diru-laguntzen gaia arturik, samintasunez ikus-ten dogu ez gareala danok bardin. Esaterako: "el batua"ren aldezeak, diru mordoa eta gura daben beste artuten daben bitartean, besteak, euzkera txukuna eta jatorra, eriotzaren atzaparretatik atara guran dabilzanak, lau ogerleko eta besterik ez.

Ba dirudi, olan neurtuten dirala batzuen eta bes-teen balioak. ("H" eta erderakadak sartu ezker-o, laguntza guztiak oparo emongo dautsuez; arau orreik ez betetzekotan, baiña, dan-dana alperrekoa izango da, nai ta egundoko lanak egin).

Gauzak orrela, euskaldunok gure aurrean dau-kagun geroa, euzkera alorrean, naikoa larria da-kusgu. Eta au, arduraz beterik diñogu. Erri txiki baten bizi gara, bi laterri aundiren artean, biztan-

EUSKEREA

lez be gitxi eta euzkeraz egiten dogunok, are gitxiago. Alan be, danok banatuta eta sakabanaturik, bakoitza bere aldetik.

Zelango poztasuna ta barri ona geure izkuntza gitxiesten dabenentzako!

Amaitzeko, gauza bi esan bear dodaz. Alde batetik, len esan dodan lez, atzeruntz goazala, ezpai barik, geure erruz ganera, ez dakigulako alkar ulertuten geuk gure artean, eta ori ez badogu egiten euskaldunok, are gitxiago, kanpokoak.

Besterik, "el batua" deritxonak mesede itzelak egiten diardu erdereari ainbat eta ainbat itz arrotz sartuz. Ia, ia, esan leike gaurko "euskera" ori gaztelerearen izkelki barri bat dala. Naikoa da "el batua"z egindako liburu edo idaz-lan batzuk irakurtea, orregaz konturatzeko.

Azkenez, irriz eta atsekabez esanda, beste gauza bat esan giñei: FRANCOK ETA BERE JARRAITZAILLEAK ETA ATZERRIKO ERRIAK LORTU EZ EBENA, "el batua" DERITXONAK LORTU EGINGO DAU:

EUZKEREA SUNTSITU TA ONDATUTEA.

Larregi dala ori esatea? Leikena da. Denbora igaro-ala jakingo dogu. Baiña goazan bidetik ezin leike oso baikorra izan.

Edozetara be, eutsi dagiogun itxaropenari, gauzak txarragora ezin leikezalakoan joan. Ala... bai?

1992ngo Jorraillaren 22an.

MALAX-ETXEBARRIA TAR JON
"KALAMUA"
"ARBOSOEN IZKUNTZA ZALEAK"
ALDIZKARIAN

EUSKERAZAINTZA **EUSKERAREN** **ERRI-AKADEMIA**

SARRERAKO ITZALDIA

EUSKERAZAINTZA'k erri-euskera maite daben guztiai barri pozgarri au emoten dautse:

ZUBIRI'tar Iñaki Euskerazaiñak
Akademi onetara sartzeko egin
bear dan itzaldia egingo daua

Eguna: 1993'ko azillaren 27'a.
Tokia: Bilbao'ko Udalaren Kultur-Etxea
Barrainkua kalean, 5n. atean.

GAIA: LAUAXETA

(Guztioi doatzue deia)

Gizarte gaietan betiko leloa

KUKUA ETA TXANTXANGORRIA

Bere umeentzako kabia egiten zoraturik zebillen Txantxangorria, batetik bestera txotxa-biltzen. Udaberria atezoka zegon eta ibilli egin bear kabirik egingo bazan. Lenengo ta bat, lekua aukeratu. Gero, txotx lodikoteak eutsigarri bezela, kanpotik; belar-izpiak bigungarri, barrutik...

Zenbat joan-etorri, zenbat neke!

Noizbaiten, orratio, kabia eratuta zegoan. Ondoren, lanik miñena eta neketsuena zetorren: arrautzatxoak ipiñi. Txorien kabietan arrautzatxoak sekulan ikusi al dituzu? Gauza politagorik...! Pinportadun margo-kolore guzieta-koak dituzu.

Lau arrautzatxo jarri zitun maiteki bere kabian gure Txantxanek. Lau arrautzatxo zoragarri. Bere erraietatik sortuak laurak. Epel-epelak. Lan arekin gaixo ere jarri ziztaigun gure txori panpoxa, sukarretan bero. Bero artan gorde bear bere erraietako frutua...

Bitartean, kuku maltzurra zugaitzetik zugaitzera egaka lasai. Berak ere Udaberriaren irrintziari erantzun nai lioke, baiña neke askorik gabe. Zertarako? Tontoren bat billatuko dut baso-baltzaren batean...

Txantxangorri egarri da, egoi-aizeak irten bait du goizetik. Iturria, berriz, an beeko zokonean dago. Arbolaren puntan, kukua zai. Txantxan galdu danean ur-billa, kabi-ko lau arrautzatxoan erdian jarri du berea, aundia eta mardula. Agur esanda, ba-doa.

Txantxan kabira eldu danean, ama-rniñak bero-bero eginda egon arren, ziria sartu diotela konturatu da, maltzurkeriz sartutako arrautza berria. Epela ura ere. Zer egiñ? Ama-miñak beste griña guziak zapaldu ditu eta onartu du bere kabian...

Egunak pasa dira, arrautzak erdibi dira eta ondoren, bost ao zabal-zabalik agertu. Lau txikien erdian ao zabal aundi bat. Beronek bakarrik ematen dio beste lau txikiak baiño lan geiago.

Jan da jan, bostak azi dira; baiña, danentzako kabian tokirik ez, bosten artean bat oso aundia bait da. Aitaren maltzurkeria semearengan agertzen da: ego-bizkarrakin bultzaka bota ditu beste guztiak kabitik kanpora, kuku-kumea gelditu da iñoren kabian jaun da jabe...

Amaika orrelako...!

ARRINDA'TAR ANES (1972)

IFUIN-SARIKETA

(BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan lez aurtan be. ipuin-sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

Ipuiñak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearco dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.

Ipuiñak asmatu-rikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.

Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.

Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi, 14, 2^a eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta ZER'en agertuko da, Urterillean, baita DEIA Egunkarian be al bait lasterren. Sariak lau izango dira:

1^a 40.000 pezeta

2^a 30.000 pezeta

3^a 20.000 pezeta

4^a 10.000 pezeta

Ipuiñak izen-ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

EUSKERAZALEAK

EUSKALDUN BARRIENTZAT

Amak sukaldean errezeta au itzi dau, baña itz batzuk ez dira ondo ikusten. Falta diran itzak ipiñi bear dozuez.


MAKAILLAO PIL-PILEAN

Lurrezko ontzi.....oli ugari.....berakatz zatitxuak sutan jarri.
 Egiñik dagozanean..... sutatik kenduten da. Berakatz zatiak aldentuten dira, eta azpilataraten dira.
 Olio otz dagonean, makailloa.....da, ta su gozoan ipinten.....
 Ontzia eragiten da astiro-astiro, baña geldituegin.....
 Makailloari "jelatina" ataraten.....prest dago.
 Zerbitzeko berakatz.....ganean jarriko dira.

•xeuae'ueauoxufal u •xueq `up
 •uatetoq `cnlairq 'eiztuo 'uaa 'uualrg

VNM'IVZV

Urzaldia, zegaz amesten dagon jakin gura dozuenak, margotu eizue! 1 baltzaz; 2 larrosaz; 3 grizez; 4 urdin argiz; 5 orlegiz; 6 oriz.



ZORTZI ALDAKETA

- zr nup alrzlluq tJJrlaq T?ia.iorlrj 'g
ori lrq u.ir —•L
- urazlr o sria lrq zlrDnz — q
- urazlr'nz luq taq —•S
?|ua|n|aq —
- orixh luq rlou —'£
- u.uupaq oa.ttnl —
- uulaz upu o sriaa luq ur —• [

KARMELE



EUSKERAREN ETORKIZUNA

DV'n, Loreilla'k 20'an, Txomin Garmendia'ren "Ez gera jabetzen" idaz-lana irakurrita, gai ontaz zertxobait idaztea bururatu zait.

Bertso-paper leiaketari buruz; bertso egille gazteak, erderaz pentsatu eta euskeraz idazten dutela" dio. Eta aurreraxeago: "Eta ez da gazte batzuetan bakarrik ikusten dan akatsa, patata-zomorroa bezin ugari jarri zaigu eta".

Egi borxibilla, baiña ainbeste ikastola, ikastegi, irrati ikusirrati (ETB) ditugula, nola diteke ori? Ez ote da ondo irakatsi bear lutekenak, oietako geienak beintzat ez dirala bere lana ondo egiten ari?

Euzkaldunak, –EUKALDUNAK diot– entzun eta irakurtzen diran astakeriak lasai-lasai entzun eta ikustea ezin da ulertu! Ainbeste "erderaleada" eta okerragoak diran, erdel joskerak entzuteak min ematen du eta ez da arrizkoa gazteak, Txomin'ek esaten duna egitea.

Erderak inguratuak, zapalduta oldozten. Baiña azken urte auetan arduradunak, irakasleak, irrati, ikus-irrati e.a. ondo ari ba'lira... beste ollar batek joko liguke kukurru-kua!

"Arbasoen-Izkuntza-Zaleak" Elkartea, (3325 Bidaltokia -Apartado- 20080 Donosti) EUZKERAREN alde lana egiteko sortu zan eta EUZKERA maite duten guzien laguntza bear degu gure lanak indarra izan dezan.

ARZELUS'TAR AMALE

"Arbasoen-Izkuntza-Zaleak" Elkartekoak

(DV, Deia-El Correo Español eta Egin'era bialdua - 1992-V-28'an argitaratu gabea)

Donosti, 1992'ngo. Garagarrilla'k 13
Jean Haristchelhar
Euskaltzaindi'ko Lendakari jauna
Ernani Kalea, 15
20004 Donosti

Haristchelhar jauna agur:

Il ontako GaraQarrilla'k 6'ngo. D.V. izparringin "Euskaltzaindiko perfume berria" idaz-lana irakurrita arrituta gelditu gera.

Idaz-lan askotan, aitatutakoan ikusi ditugun nabarmenkerien antzekoak agertu dirala egia da, baiña Euskaltzain baten itzak diranean kezagarriagoa dala derizkiogu.

Arkitu ditugun nabarmenkeri oien adibide batzuek onan:

... baina garai hartan Euskaltzaindian egoteko arrazoiak ere ziren ba pixka bat euskera indartzea...".

"Baina gelditzen zaizu halako kontzientzia txar bat iruditzen zaizulako umeei ez diezula behar adina ematen"

"... nik uste ikasi genuena izan zela gauzak esan aurretik bi bider pentsatzen".

Adibide auek erabillitako joskera, erdel-joskera dala argi adierazten dute.

Erderak dun eragiña dala ta, gure artean, erderaz oldoztuaz euzkera erabiltzea, bai idatziz ta bai itz egiten, ulertzekoa da. Baiña au, irakasle, idazle, irrati, urrutikuskin, izparringi eta orrelakoetan ez da berdin. Au, gure izkuntza gal-bidean jartzea dala ezin du inork ukatu. Baiña au Euskaltzain batek egiteak... ez du izenik.

Ikusi ditzagun orain erabillitako itz batzuek; auek ere adibidetzat noski:

"agobio" - "kozinan" - "formazio akademikoa" - "programa" - "kasua" - "planteamentuarekin" - "erregalo" - "problema" - "espezialitatea" - "sospetxosoak" - "informazio" e.a.

Erdel joskera, erdel itzak... bide ontatik euzkera, gazteleraren izkelki biurtuko degu.

Miren Azkarate'k, Zipitria'tar Elvira, Agirre'tar M.ª Dolores, eta gure aurreko Euskaltzain bikain aien berri ez dula edo oso gutxi eta gaizki dakila ikusi degu gañera.

Ezin gera emen beren lana eta jakite guzia azaltzen asi, orri asko bear genituzke ta.

Euskaltzaindia'n, Miren Azkarate'ri, Zipitria'tar Elvira, Agirre'tar M.ª Dolores eta orduko Euskaltzain aien nortasuna eta egindako lana adierazi lezaiokeen norbait izango da noski. Esan ba andereño oneri aien lana ta jakinduria ez zirala "pixka bat euskera indartzea, laguntzea..."; beren jakinduri guztiaz, iya landu gabe zan Euzkera, lantzea, irakastea, goiko mallara jasotzen alegintzea baizik. Aieta-ko inork ez zun inola ere, len aitatu ditudan bezelako nabarmenkeririk ez esan ta ez idatziko.

Arazo ontaz amaika guza esan ditezke oraindik, baiña oraingoiz naikoa izango da.


Bukatu baño len adierazpen bat bakarrik: Gure iritziak ezin ditugu izparringietan azaldu. Ordaindu gabeko ataletan –"Cartas al Director" eta orrelakoetan– idaz-lan asko ez dizkigute argitaratzen (zergatik ote?) eta ordaindu bearrerekoak, guretzat garestiegiak dira ez bai degu inoren laguntzarik... Ona gure adierazpena.

Besterik gabe, erantzunaren zai

ARZELUS'TAR AMALE

Arbasoen Izkuntza-Zaleak Alkartearen Lendakaria'k

IZKUNTZA BAT BERA DAUKAGU



*Auxe dozu zure betiko
Kutxa. Bere berbea bete
eta zure bear-izanak
ulertzen dauzan Kutxa.
Etorkizunera zabalik dagoan
Erakundea, etenbako
gora-gogoagaz
bere erriko jenteari
laguntza-gai osoak
eskintzen dautsozana.
Beti dago zugandik ur
izkuntza bakar baten
alkar ulertu daikegun.*

BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa